

# ALTZA ETA INTSUMISIOA

---

Aitor GARIN

*Lantxo honen bidez Altzan Soldaduskaren aurrean intsumisio jarrerak izan duen eboluzioa azaltzen saiatuko naiz, argi utziz Altzako Intsumitu Taldeko diren beste zenbait kide puntu batzuren inguruan eritzi ezberdinak izango dituztela, anitza baita Intsumiso mugimendua.*

## ALTZAKO INTSUMITU TALDEAREN “AURREHISTORIA”.

Orain hamar-hamabost bat urte Altzako gazte giroan sentsibilitate ezberdinak zeuden Soldaduskaren aurrean. Hego Euskal Herrian giro politiko-soziala oso astindua zegoen eta gai honen inguruan indar politiko bakoitzak bere irakurketak eta proposamenak egiten zituen. Intsumisioa baino, Objezioa zen indar sozial eta politiko aurrerakoiek proposatzen zuten bidea, **Kontzientzi Eragozpena**. Jarrera honekin batera, Ezker Abertzaleko Jarrai gazte erakundeak, eztabaida luze baten ondoren, beste motako soldaduska bat proposatu egiten du, eta gogor defendatu ere bai. **“Soldaduska honi Ez!”** leloa gazte indar politiko honen ikurra izan zen zenbait urteetan. Euskal Herriak Espainiar eta Frantziar Armaden okupazio militarra jasaten du; irtenbidea, Negoziazio Politiko bat aurrerapausuak emateko Euskal Herriaren eraikitze prozesuan, eta horren barruan Euskal Armada bat sortzeko beharra. Bainan soldaduskara joan behar dute Jarraiko kideak, Kontzientzi Eragozpena jarrera indibiduala delako, indar espainolistak bultzatua dagoelako, ..

Hau da, eskematikoki, Altzan ere isladatzen dena. Gazteon jarrerak hiru multzotan sar daitezke: ezer esan gabe joango direnak, naturaltasun osoz eta askotan ere nahiko harro, “gizonak” bihurtuko baitira; praktikan zerbitzu hori egitera joango direnak nahiz eta politikoki hori ez dela beraiek nahi duten soldaduska esan; eta joango ez direnak, objektoreak bihurtuz, zerbitzu sozialak beteaz.

Garai honetan nolabaiteko “enfrentamentua” ematen da azken bi korronteen artean, batak besteari pintadak eta muralak borratzen, batak besteari manifestaziotarako konbokatoriak zapaltzen, kartelak kentzen, ... Hona hemen bitxikeri bat: Altzako Jarraiko taldea sortu eta hiruzpalau egunetara, erakunde honetako zenbait kide pankarta bat prestatzen ari zirenean Herreran zegoen Gaztetxean, Donostiako kide bat agertu zen hauekin bilera egiteko. Azken honek pankarta ikusterakoan sekulako moskeoa harrapatu eta bronka bota ondoren zaborretara botatzeko esan zien, pankarta horren leloa Jarraiko ildoarekin zerikusirik ez zeukalako. Leloa hauxe zen: “Ni mili ni letxes, los cuarteles para Gaztetxes”. Lelo hori EMK eta LKren inguruko gazteek erabiltzen omen zutelako garai hartan.

Horrela, urte horietan Altza mailan dagoen dinamika oso eskasa da, ia ezer ez dago antolatua soldaduskaren aurkako gaian, eta egiten diren gauza gehienak Donostiatik erakunde bakoitzak bere kide eta jarraitzaileei markatutako ildoan oihartzuna besterik ez da. Iraunkorki egiten den gauza ia bakarra gabonetarako, Donostiako egunerako,.. egun berezi horietan Udaletxeari baimenak gestionatzea eskatu Donostiako gazteak hirian egoteko fetxa berezi horietan.

Fase honen amaieran Konzientzi eragozpena gaintua ikusten du bere burua Intsumisioak pixkanaka lortzen duen arrakasta dela medio. Konzientzi Eragozpena defendatu eta bultzatzen duten zenbait mugimendu sozial eta politiko aurrerapausuak emateko unea iritsi dela erabakitzen dute soldaduskaren aurkako borrokan, eta jauzi kualitatibo bat planteatzen dute: **Intsumisioa**, armadari benetako planteia.

Apostu honekin aldaketa batzuk ematen dira, egoera aldatzen baita. Eta aldaketarik nabarmentena apostu honen aurka sortzen den errepresioa da, batez ere arlo judiziala erabiliaz. Guzti honek goraiatzen du Intsumituen borroka. Estatuaren aurrean desobedientzia jarrera argia delako, eta gogorki zigortua dagoelako. Atxiloketak ematen dira, gartzeleraketak,.. Hego Euskal Herrian, eta Altzan, Estatuarekiko intsumisioak tximista-indarra hartzen du, zentzu zabal batean elementu historiko bat delako, besteak beste.

Gauza bat falta zen jakiteko, zenbat denbora iraungo zuen Jarraik bere jarrerarekin? Urteetako kontraesanak zertan geratuko dira? Zeren oraindikan Intsumisioa bera ere ez zegoen ondo ikusita Jarrain. Ezker Abertzalean Herri Batasuna izan zen Intsumisioa publikoki bultzatuko duen erakunde bakarra. Jarrairen barruan eztabaida baten premia nabaria zen.

Erantzuna iritsi zen. Jarraik eztabaida sakon bat burutu zuen, eta horren ondorioz soldaduskarekiko bere jarrera aldatu zuen, autokritika tinko bat plazaratuz. Hemendik aurrera Jarraik Intsumisioa bultzatuko zuen bere kideak zeuden herri edo auzo taldeetan lan egitera ekinaz.

Lan amankomunerako baldintzak jarriak zeuden Hego Euskal Herrian eta, logikaz, Altzan.

## **ALTZAKO INTSUMITU TALDEA. SORRERA ETA BILAKAERA.**

Baldintza hauek zirela eta, zenbait gazte gaia ikutzen hasi ginen. “Zerbait egin beharko dugu, beste auzoetan eta herrietan taldeak daude eta Altzan bakoitzak bere kaxara doa. Elkartu beharko gara,..”

Intsumisioak benetako indarra hartu du, eta lehengo tximista sua bilakatu da, izugarrizko elkartasuna lortuaz. Baina Altzan ez zegoen ezer antolatua. Bat MOC inguruan dabilela Donostiako taldean, eta noizbait kartelak jartzen dituela, beste batzuk Kakitzat intsumitu koordinakundearen kartelak jartzen dituztela, Jarraiko kideak ere hortik dabilta,.. baina gorputz amankomunik ez.

Azkenean talde txiki bat biltzen da zerbait sortzeko asmoarekin. “Korronte” ezberdinetako jendea dago tartean. Bitxikeri bezala aipatu daiteke gehienak Jarrain ibilitakoak direla, baina momentu hartan dagoeneko bakoitzak berkokatua zuela bere burua. Eztabaidan hasten dira. Argi dago haien artean ezberdintasunak daudela; beraz, denon artean errespetoa egon behar du, eta inork ezin dio besteari ezer inposatu. Zentratu behar gara batzen gaituzten puntuetan, eta horien inguruan lan egin. Ados. Intsumituak gara eta Intsumisioa bultzatuko dugu. Altzako Intsumitu guztion topagune izan behar du taldeak, erreferentzia. Elkartasuna sortu eta aregotu behar dugu. Informazioa, mobilizazioak, eztabaidak,..

Pixkanaka asmoak gorputza hartzen dute. Izen bat hartzen da: “Altzako Intsumitu Taldea”, nahiz eta askotan ere agiri eta kartelak “Altzako Intsumituak” bezala sinatu. Bilerak egiteko ez dugu leku finkorik. Kulturetxeko arduradunarekin hitzegiten da, eta goiko solairua uzten digute Larunbat arratsaldeetan. Dena den, apenas egingo ditugu hiruzpalau bilera bertan; beste bilera tokiak izango dira taberna ezberdinak, Txalaka Elkarte edota kalea bera.

Kanpoko inorekin harremanik ez dago eta beraz, Altzarako dinamika propio bat asmatzen goaz. Noizbehinka egunkarietan irakurtzen ditugun ekimenak eta esperientziak kopiatzen saiatzen gara. Hor besteak beste, “Altza Intsumitua” Plataforma sortzeko egin zen planteamentua. Bertan proposatzen zen Intsumituekiko elkartasuna adierazi nahi zutenen plataforma eratzea Altza mailan. Bertan egongo ziren auzoko elkarteak, taldeak, pertsona famatuak,... Zertxobait hasi ginen lantzen baina bertan behera geratu zen ideia, taldeari, bere bizitza osoan zehar falta-kobaitzaio benetako jarraipen edo iraunkortasun bat.

Kartelak agertzen hasten dira sinadura horrekin, pankartak ere, noizean behin ateratzen gara pintadak egitera,.. eta lehengo mobilizazioak egiten dira: konzentrazioak, enkarteladak, manifestazioak,..



**Kode penal berriaren aurkako mural margoketa Altza Kaskon.**

Ikurrarekin gauza kurioso bat gertatzen da: “Altza Intsumitua” plataformaren ideia hor zegoen, eta horretarako proposatua zegoen ikurra Altzako armarrria zen “Altza Intsumitua” lelo-arekin. Baina plataformaren ideia gauzatu ez zenez, Intsumitu Taldeko idatziak sinatzeko erabilia izan zen.

Momentu honetan Altzan tresna amankomuna sortua dago, Intsumisio mugimenduari benetako bultzada praktikoa eman behar diona. Horrez gain, erakunde bakoitzak edo beste erakundeen jarraitzaileak bere mezu propioa kaleratzen jarraitzen dute gai horren inguruan bakoitzak dituen ezberdintasunak azalduz.

Dena den, lehenengo bultzada emanda dago eta gure itsasontzi intsumitua badao.

### **Lehenengo arazoak. Egituratzea.**

Ba zihon bai, baina errenka. Iraunkortasunik ez da lortzen eta kolpeka ari gara. Batzuk, gure lana medio, zailtasunak ditugu behar den bezela koordinatzeko eta horren ondorioz, zenbait momentutan galduak aurkitzen gara. Topagunea izan behar zenaren bilerak toki ezberdinetan egiten dira eta erreferentzi gune fisiko eta egun bat ez da lortzen,.. neurri batzuk hartu behar dira: norbaitek koordinatu beharko du, maiztasun bat eta leku bat finkatu beharko da, kanpainak zehaztu behar dira, beste auzoetako taldeekin nolabaiteko koordinazioa egon beharko du...

Hor zegoen kokka. Pixkanaka jende berria sartzen da, eta praktikan batzuk hartzen dute koordinatzeko ardura. Pixkanaka taldea finkatzen doa. Dena den , elementu garrantzitsu batek lagunduko du “egituratze” eta dinamikaren finkatze honetan: epaiketak.

Taldeko zenbait partaide Intsumitu bihurtu dira praktikan eta epaiketaren zain daude. Baten bat ez da aurkeztuko eta “busqueda y captura” aginduko diote edozein egunetan.. Egoera hauen aurrean prest egon behar gara, erantzun onak emateko.



**Larratxoko Josu Artetxe plazan Josu Lonbide intsumituari bapateko ongi-etorria.**

Horrela, Epaietak eta hauen inguruan sortzen diren egoera errepresibo guztien aurrean gauzatu behar diren borrokak izango dira Altzako taldearen elementu eragilea, motibazioa.

Honen ondorioz kartel pertsonalizatuak jartzen dira epaiketa egunetan, gure argazkiekin, propagandako lanak areagotzen dira, enkarteladak,.. eta honekin batera jendea bilatzen saiatzen da "autoinkulpazioak" egiteko. Garai horretan, epaiaketetan jarraitzen zen taktika bat testigo bezala lauzpabost bizilagun oso ezagunak edo famatuak eramatea zen, epaileari esateko haiek intsumisioaren alde zeudela eta epaitzen ari zen gazteari intsumiso izateko konbenzitu ziotela, atxilotetatik ihes egiteko beraien etxeak eta laguntza guztia eskeiniz. Horrela, agerian jarri nahi zuten Intsumisioa ez zela delitu bat gizarte barruan eta zigortzekotan beraiek konplize zirela, epailea egoera gogor batean kokatuz. Dena den, bilatzen zena batez ere egoera gogor hori gizartean eragitea zen, ez hainbeste epaileengan.

### **Alderdi politikoen jarrerak. Egoitzen aurrean protestak.**

Errepresioa areagotzen den neurrian, esan bezala, erantzun dinamikak indartuz doaz, salaketa eremu guztietara zabalduz, errepresio horren arduradunak nortzuk diren adierazteko. Estatu-tukiko Gobernuan alderdi sozialista dago, eta haiek dira neurri errepresiboak bultzatzen dituztenak, soldaduskaren inguruko borroka gogor zigortzen dutenak. Altzan alderdi honek Santa Barbara auzoan lokal bat irekitzen du. Taberna da eta kanpokaldean alderdiaren ikurrarekin batera "Herri Etxea-Casa del Pueblo" esaldia dago. Beraz, zigorraren aldeko apostua egiten ari zen alderdi politikoa ba zuen gure herrian egoitza bat, erreferentzi gune bat, eta Intsumituen protestak eta salaketak gune haratara iritsi behar ziren.



**Santa Barbarako PSOEn Herriko Etxearen paretan Altzako intsumituen protesta, pintada eta ikatzaren bidez**

Dinamika orokor baten barruan, alderdi horren egoitzaren aurrean enkarteladak, panfleto banaketak,.. egiten hasi ziren. “PSOEk Intsumituak gartzelerazten ditu”, “Intsumisioa ez da delittoa”, edota “Intsumitu Presoak Etxera” izango dira enkartelada hauen lelo nagusiak.

Alderdi politiko honek badu, garai horretan (gaur egun arte) altzatar bat zinegotzi lanak betetzen Donostiako Udaletxean. Alberto Rodriguezek auzotarako zinegotzia da eta urte gutzi hauetan, hamaika Altzatar gazteak epaileen aurrean eramatearen politika errepresiboaren aurrean ez du hitzik esango, ez du behatz bat ere mugituko.

Alderdi politikokoekiko salaketa dinamikak, nahiz eta logikaz, indar gehiena gobernuan dagoen alderdiaren aurka jarri, beste alderdi batzuen aurka ere zuzentzen dira, batez ere, Gasteizko gobernuan alderdi sozialistarekin batera gobernatzen duen alderdi jeltzalearen aurka. EAJk ez du “garbi” hitzegingo orain dela urte gutxi arte. Alde batera geratzen saiatzen dira, gazteek haiengan ez fijatzea, baina jarrera horretatik errepresio politikan laguntzen dute eta egun indarrean dagoen objezio legearen babesean. Gainera, une puntaletan alderdi honek egiten dituen apostu belikoak (OTANi bai bere garaian eginiko erreferendumean eta Golkoko gerran) Intsumituok daramagun borrokaren aurka kokatzen du. Gaur egun, oraindik, alderdi honen partaide eta Gobernu Autonomikoaren lehendakari den Jose Antonio Ardanzak garbi esan zuen berari bost axola zitzaiola Hego Euskal Herriak OTANi ezetza ematea bere momentuan egondako erreferendumean; bera OTANen alde zegoela eta dagoela orain ere. Lotsagarria benetan.

EAJk ba du ere zinegotzi Altzatar bat Donostiako Udaletxean, Martin Elizasu. Honen jarra, alderdiko jarrera bezala, aldakorra izango da. Urte luzetan eskakeoa, abstentzioak edo kontrako botoak mozio ezberdinetan. Eta azken garaian, alderdiko gazteen presioagatik (eta gizartean intsumisio jarrerak duen arrakasta medio) Intsumituen alde hitzez kokatuko da. Hala ere benetako pausu praktikoak ematea kostatzen zaie, benetan konsekuenteak diren pausuak. Eta Altzatarrok pairatzen dugun egoeraren aurrean ere zinegotzi honek ezer praktikorik ez du egingo.



**EAJ-ak Herreran daukan Batzokian egindako protesta.**

## Protesta ekintzen aurrean errepresio politikoa

Dinamika hauek ez dira alderdi hauen gustokoak, batez ere alderdi sozialistan. Zerbait behar dute Intsumituen protestak bere egoitzaren aurretik botatzeko. Lehenengo momentuan intimidazioa erabiltzen ba da ere, Ertzaintzaren furgoneta edo patrullaren bat handik pasatzea “kontrolatzeko”, neurri honek ez du funtzionatzen, eta errepresio bortitza izango da berriro alderdi honen jarrera.

Kalean egiten den propaganda (muralak, graffitiak, pankartak,..) desagertzen dira ordu gutxitan “garbiketa” brigadila medio. Honen aurrean Intsumituek areagotzen dituzte enkarteladak egoitzaren aurrean. Halako batean, enkartelada burutzen ari zela gazte batzuk, aurpegia estalirik, pintura zuten arraultzak bota zituzten egoitzaren paretaren kontra. Zoritxarrez, arraultz pare bat barrura sartu ziren han zeuden batzuk pixkatxo bat zikintzen. Hortik egun gutxitara, altzatar gazte batek udaltzaingoaren eskutitz bat jasotzen du, komisaldegian aurkezteko. Hau, beste lagun batekin elkartu eta Donostiako Easo kalean dagoen udaltzaingoaren komisaldegira abiatu ziren. Sartu bezain pronto, udaltzain batek, paisanoz jantzita eta harrotasunez bete, gazte honi atxilotua dagoela esaten dio. Ezer gehiago. “Está usted detenido y se viene conmigo a los calabozos”. Beste gazte handik abokatu bat lortzeko asmotan ateratzen da eta ordu erdi batera abokatuarekin agertzen da komisaldegian. Berriro ateratzen da udaltzain berdina. “Vengo con el abogado para asistir al amigo que habéis detenido”. Eta honen erantzuna: “Identifíquese usted!”. “Yo? Oiga, simplemente le dije que traería al abogado y aquí está. Sólo soy un acompañante, ya me ha visto usted antes”. “He dicho que se identifique, de lo contrario quedará usted detenido”. “Cómo me voy a identificar si sólo he venido a traer al abogado? Yo no tengo nada en este asunto, no tiene usted por qué exigirme nada y menos en ese tono. Dígame el motivo”. “Está usted detenido. Tiene derecho a permanecer en silencio,..”. “Pero bueno, ya le he dicho que he venido a traer al abogado, qué pasa aquí?”. “Al calabozo!”. Eta bitartean abokatua aluzinatua. “Oiga, oiga, vamos a ver, tranquilícese usted, qué razón tiene para salir con esos humos y querer identificar de esa manera a esta persona?..”. Azkenean, gauzak lasaitu ziren. “Rambito” joan zen eta lehenengo gazteak gaua pasa behar izan zuen komisaldegian; hurrengo egunean beste bi gazte izango ziren atxilotuak.

Ez zuten parte hartu arraultz jaurtiketan, eta hori bazekiten udaltzainek, testigo guztien deklaraziotan argi geratzen zelako, baina hala ere atxilotuak izan ziren, alderdi sozialistak eragindako presio politikoak medio. Udaltzaingoan bazegoen lan zikin hori nork egingo zuena. Azkenean, libre geratu ziren inolako kargurik gabe, baina kaka guztia botata zegoen eta inork ez zuen inolako barkamenik eskatu. Udaltzain xeble hartaz ezer ez dakigu, zorionez.

Hoberena enkarteladak egiten jarraitu zirela izan zen, arrazoi gehiago zeudelako oraindik, eta jende gehiago parte hartuaz. Altzako zinegotziek, hemen ere, mutu.

## Altzako Intsumituen epaiketeekiko jarrerak.

Sarreran aipatu den bezala intsumisio mugimendua anitza da. Jarrera ezberdinak daude. Batzuk intsumituak egiten ziren baina epaiketetara joaten ziren, beste batzuk ez ziren aurkezten, ez epaiketara, ez aurreko deklaraziora,.. Epaiketan bertan, batzuk intsumituek zergatik egin diren azaltzen saiatuko dira, beste batzuk ordea, mutu geratuko dira epailearen aurrean, eta beste batzuk egoera aprobeztatuko dute epailearen aurrean salaketa mezu argi bat emateko. Epaiketetara agertzen ez direnak, egun horietan kalean protestak burutzen dituzte atxilotuak izateko eta protesta horiek eta atxiloketa bera bozgorailu gisa erabiltzeko.

Altzako Intsumitu taldeko kide gehienek jarrera ez aurkeztearena izango da. Horren ondorioz “busqueda y captura” egoera dator. Edozein unean, edozein lekuan atxilotua izan zintezke epailearen aurrean eramateko. Egoera honetan aurkituko dira gazte dexente eta horrek mobilizazio dinamika pizten ditu.

Epaiketetan dena esanda egongo da Intsumisioak daukan tratamendua oso berezia delako. 2,4,1. Hauxek izango dira guztion buruan egongo diren zenbakiak. Bi urte, lau hilabete eta egun

bat. Intsumiso izateagetik epaileek ezartzen dizuten zigorra. Beraz, pena merezi al du zure burua defendatzen saiatzeak? Denok dakigu kasuak eman direla non epaiketa izan baino lehen sententziak emanak zirela.. Aurrerago ezagutu ditugu zenbait altzatar izan zuten epaiketen berri, oso adierazgarriak izango baitira.

### **Errepresio eta kartzela zigorren aurrean, elkartasuna bultzatu.**

Hasieratik elkartasunarena zen landu beharreko ildo, eta maila horretan zenbait ekimen egin ziren, nahiz eta jarraipen aldetik motz geratu.

Kanpainarik serioena pegatina zuen tresna bezala. Komertzioz komertzio joan zen eskutitz bat emanez; bertan altzatar intsumituen egoera azaltzeaz gain, gurekiko elkartasuna eskatzen zen, eta elkartasunaren adierazgarri -diru laguntzaz gain, dexente eman bait zuten-, pegatina bat komerzioko atean jartzea zen. Lehengo fasea ondo samar bete bazen ere, pegatinak arrakasta izan zuten eta laister bukatu ere -gutxi atera zirelako-, bigarren fasea (pegatinak dendetan jartzearena) zintzilik utziaz.

Epaiketen aurrean autoinkulpazioak egiteko zerrendatxo bat ere egin zen. Bertan, altzatar ospetxu edo Altzako erakunde ezberdinetako ordezkariak bildu genituen. Hauetako zenbaitekin hitz egin ba zen ere, jarraipenik ez zuen izan gaia.

### **Donostiako Intsumitu Taldeak koordinakundearen sorrera.**

Donostiako auzo ezberdinetan Intsumitu taldeak ere bazeuden: Loiola, Egia, Bidebieta, Gros, Parte Zaharra,.. eta haien arteko harremanak oso era informalean zeuden. Planteamentua laister jarriko zen mahai gainean. Nahiz eta bakoitzak bere dinamika propioa eduki, Udaletxe berdina dugu instituzio bezala, eta zenbait arazo amankomunak dira, instituzioarekiko borroka bera bezala. Bestalde, oso garrantzitsutzat baloratzen da elkar ezagutzea eta esperientzi trukaketak. Donostia mailako dinamika bultzatzeko ez zen egoki ikusten KEMen edota Kakitzaten sartzea, gure autonomia gorde nahi genuelako, eta erakunde horiek ba zutelako beste paper bat betetzeko.



**Altzako Udaletxean salaketa: pintadak eta ikatza.**



Horrela, lehenengo bilerak egiten dira, lan talde bat sortuz. Lan taldeak laister aurkeztuko zuen nolabaiteko egituratze proposamen bat. Hori eztabaidatzeko Batzar bat konbokatu zen Groseko Auzo Elkarteak duen lokalean. Bertan dexente eztabaidatu zen eta, besteak beste, Altzako taldekoek “pelmada” dexente eman genuen autonomiaren ildotik. Koordinazio minimo baten beharra ikusten ba genuen ere, egituratze baten arriskua ere ikusten genuen, eta garbi geneukan ez genuela nahi Donostia mailako egitura bat sortzea, auzoetako taldeak autonomia eta inizatiba galduaz.

Azkenean, Donostiako Intsumitu Taldeak koordinadora sortu zen eta dagoeneko baditu zenbait urte eginak. Denbora horretan, Altzako Taldean zeuden kezkek konfirmatuak izan ziren. Autonomia eta inizatiba neurri handi batean galdu ziren, baina ez Donostiako koordinazioaren eraginez soilik, baizik eta gure gabeziengatik ere.

Taldeak erosotasunean erortzen ari zen; taldeko lagun batek egiten zuen koordinazioa Donostiakin eta taldeko bilereen dinamika eramaten zuen. Laister joan ginen ohitutzen hasiera hasieratik bileretan Donostiako bilera hitzegindakoaz mintzatzen, denbora gehiena hortara dedikatuz. Beste motako ideiak apenas ez ziren ateratzen. Geroz eta gehiago hasi zen Donostiako klabeen funtzionatzen, koordinazioa egiten zuten kide horietan delegatzen.. Behar bezalako indarra ez zen jarri hasieratik eta ia konturatu gabe Altzako taldea Donostiako Intsumitu Taldearen adar bat besterik ez zen.

Honekin batera beste arazo bat sortuko da. Dinamika organikoa edo “funcionarial” bat dagoen neurrian, taldearen bilerak tramite bihurtzen dira, enkarguak jasotzeko edota egiteko. Taldeak inizatiba propioa galtzen duen neurrian, isten doa. Jende berriari ez da iristen bere dinamika pobrea delako. Altzako Intsumitu Taldeak, dinamika ireki eta asanblearioa galtzen doa eta talde itxi bezala funtzionatzen du. Ez dira saiakera seriorik egiten jende berriarengana iristeko, eta taldeko partaide batzuk deskolgotuak geratzen dira.

Pixkanaka oso gauza adierazgarri bat gertatuko da: altzatar intsumituak epaituak izango direla eta Altzako Taldeak ez duela ezer egingo kale mailan,.. Jakin ere ez dakitelako hori gertatu dela.

Altzako Intsumitu Taldeak ez daki zenbat altzatar intsumitu dauden, ez du lortzen bere kidegoaren kopurua igotzea,.. ez du bere errealitatea ezagutzen.

Honek ez du esan nahi ezer egiten ari ez dela. Taldeak dinamika on bat mantentzen du, zenbait informazio eta salaketa kanpaina burutuz, baina klabea ez da berdina, kanpainak ere antolatzen dira Donostiako ekimen bezela hartuak eta talde itxi batek mugitzen du. Lehen esan bezala, ez gara berdin kezkatzen gure herrian intsumisioaren jarrera hedatzeaz.

Etorkezuna hipotekatua dago eta taldea ez da horren jabe.

### **Epaiketak. Zigor politikoa justifikatzeko itxurakeria.**

Gorago epaiketaz hitz egin dugu, eta orain zabal mintzatuko gara horretaz. Aspalditik esaten ari da epaiketak farsa bat direla eta inolako legitimitaterik ez dutela gure pentsakera epaitzeko. Egia da bai, ikus dezagun zergatik.

Intsumisio jarrera borroka baten azkenurreko etapa da. Ejerzitoari ezetz borobila ematen diogu. Guk ez dugu onartzen militarren autoridaderik, ezta gutxiagorik ere beraiekin betetzeko dugun “betebehar” hori. Arrazoi ezberdinagatik, intsumitu bakoitzak bere ideologia daukalako. Egoera hau militarrek ez dute onartzen eta gobernua ere ez. Militarrek betidanik benetako botere bat izan dira, bere fondoan ukaezina, eta hori zalantzan jartzea gehiegi da. Beraz, neurriak hartu behar dira, eta Gobernuak hartzen ditu.

Mota askotako neurriak eta denak klabe berdinean, errepresioa eta zigorra. Hasieratik kartzela ordain bat izango da, baina elementu “inpopularrak” daude, besteak beste, epaiketa eta sententzia tribunal militar baten aurrean direla. Hori garbiago egin behar zen, eta “justizia ordi-

nariara” pasatzen da “delitoa”. Honekin batera, eta intsumisioaz lehenengo momentu batean gaindituak daudelako - asimilaezina baita beraientzat - kontraborroka ideologikoa egin nahi dute. Horrela, objektorea gazte jator bat izango da, arraro samar soldaduskara joan nahi ez duelako, baina giza serbitzua onartzen duena, eta horrek planteamentu globalerakiko errepetua erakusten du. Aldiz, Intsumituak ez du planteamentu globalik onartzen eta errefusatzen du ez bakarrik soldaduska, baizik eta giza zerbitzua ere bai. Dena ukatzen du, dena militarren eremuan dagoelako. Horregatik jarrera egoista bezala aurkeztuko dute intsumituen jarrera; gu insolidarioak gara, ez gaude gizartean txertatuak, gizarteaz paso egiten dugu, integrazio arazoak daukagu,... azken finean, ez al gara delinkuentek?

Holako argudioak erabiltzen dira sententzietan. Gizartean oso “txertaturik” omen dauden epaile eta fiskalek gure ideologia eta pentsakera epaitzen dute. Militarrek eta militarismoa gizartearekin identifikatu nahi dute. Ez duzu makinaria honetan parte hartu? Gizartearen aurka jartzen zara. Hau ulertzeko zaila izango zen beste gauza batetaz konturatuko ez bagina: epaileek, orokorki, militarren eta antzekoen jatorri berbera dutela. Gehienek ideia atzerakoiak dituzte, kontserbadoreak dira, eta azken finean, Estatuaren beste adar bat dira, beste aparato bat, joku horretan daude leporaino. Beraz, bere papera pelikula honetan gogoz onartzen dute gehienek, horrela disimulatuz: “legeak hau esaten du eta ni legea aplikatzeko nago hemen, ez besterik”.

Baina intsumisioaren bultzada gogorregia da eta kartzela bera ere oso inpopularra da. Ez du axolik nork ematen duen sententzia, gazteak kartzelan sartzea nabarmenegia da, gainera denak ez doaz gartzelara, lekurik ez baitzen egongo, eta nolabaiteko aukeraketa bat ematen da, kriterio politikoen arabera. Ez da kasualitatea Nafarroan eman den politika eremu honetan ematea, adibidez. Intsumisioa onartua dago gizartean, baina gobernu eta ejerzitoak ez dute eritzi publiko hori onartzen (demokratikak baitira!), eta berriro itxura egingo dute: kartzela zigorra ezabatuko dugu. Hemendik aurrera, beste zigor “leunagoak” ezarriko dira: inhabilitazioa,..



Kode penal berriaren aurkako pankarta Harria parkean.

Intsumiso mugimenduak ondo irakurriko du neurri hau: sektore zabal baten heriotza zibila izango da, edo heriotza baino, eraillketa.

Hauxe da egungo borrokaren eremu berria.

Prozesu hau ematen den bitartean, intsumitu dexente kartzelan daude, eta kartzelan ere jarraitzen dute borroka egiten: planteak, hotz greba,..

Borroka guzti hauek bere oiartzuna izango dute kalean eta epaiketetan. Orain arte azaldutakoa argi ikusiko dugu altzatar batek jasan zuen epaiketetan:

Hotz grebaren kanpaina ari zen burutzen karteletan, intsumituek bilutsik zebiltzaten egun osoa bakarrik manta bat gainean jarrita. Altzatar gazte bat, Asier Garzia, bere epaiketetan manta batekin agertu zen, eta epailearen aurrean eseri zen. Honek altxatzeko esan zion eta gure lagunak kasurik ez. Berritro esan altxatzeko eta gure lagun gor, epaileaz paso egiten. Orduan epailea sutan jartzen da -bere autoridadea lurretik ikusten duelako-. "Oiga, le advierto que está usted incurriendo en un presunto delito de desacato! Levantese!" oihukatzen du epaileak bere kodigo penal berrian delitu horren artikulua ero moduan bilatzen duen bitartean. Fiskalak, egoera ikusita, eta nahiko urduri, bere nagusiaren laguntzan hasten du "Con la venia; quisiera añadir que además es una falta absoluta de respeto que se presente aquí así, con esa manta,.. Que se la quite!". Ai ene, ze paraa.. Azkenean gure laguna altxatu egin zen, besteen lasaitasunerako, eta epaiketa egin zen. Hoberena geroago etorriko zen. Hortik egun batzutara sententzia iristen da: 2,4,1. Ene, falta zena! Sententzia irakurri eta berriro betiko konstatazioa: gertakizun berdin baten aurrean, epaile berdinak bi pena ezberdin jarri.



**Josu Lonbide intsumitua, bere ongi-etorrian hitz egiten.**

Egun batzuk lehenago Aitor Eleta gazteak izan zuen epaiketa eta bere zigorra hilabete batekoa izan zen. Baina “hechos” berdinak ziren bi kasuetan. Non zegoen ba ezberdintzuna? Zuek asmatu.

Egun, ba dira altzatar intsumitu dexente kartzela zigorra gainean daukatenak. Oraindik kalean daude eta ziurraski ez dira barrura sartuko. Egoera horretan ehundaka intsumitu daude Hego Euskal Herrian, eta guztiontzako lekurik ez egoteaz gain gizarteak oso gaizki hartuko zuen holako neurria.

Baina hemendik aurrera altzatar intsumituok kondena berri bat jasango dugu, inhabilitazioa. Horren arabera ezin izango dugu lan publiko bat eskuratu, babes ofizialeko etxebizitzarik lortu,.. epaileak gure aurkako kondena sinatzerakoan gure eraiketa zibila sinatuko du. Hona hemen zeren aurka borrokatu behar. Beste lan ildo bat Altzako Intsumitu Taldearentzako.

## **ETORKIZUNA. AKATSETIK IKASI ETA IDEIA ZABALDU.**

Aipatu dugu azken garaian ze motako dinamikan sartua zegoen taldea. Desoreka handia dago eta “transmisio korrea”ren papera jolasten du gehien bat. Egun, argi esan daiteke, lotan dagoela Intsumisio mugimendua Altzan, eta ez bada inor agertzen gurditik tiratzeko haize berriekin iluna da etorkizuna. Honek ez du esan nahi inor ez dela mugitzen ari Altzan gai horren inguruan. Arazoa bestelakoa da, talde dinamikarik ez dago eta lortua zegoen marko amankomun hori usteltzen ari da, orain, erabilera faltagatik.

Hala ere, badira elementu orokorrak eta berriak eszenatokian, zeresan handia izango dutenak aurrerantzean. Altzako Intsumituok sakon aztertu beharko ditugu elementu guzti horiek, izandako akatsekin batera, iniziatiba berrartu behar delako.

Elementu berrien artean, lehengoa Malatxaren agerpena eszenatokian. Intsumisio jarrerak kriston arrakasta lortu du Euskal Herrian, erabat asumitua dago gizartean eta elkartasun oso handia dago. Hori aktibatu behar da. Elkartasun horri forma eman behar zaio, eta jarrera pasibo izatetik jarrera aktibora pasa behar da. Hor kokatzen da Malatxa. Desmilitarizazioa eta Desobediencia bidea jorratu, lan eremuak ireki, parte hartzea, aktibazioa,.. bultzatu. Ez geratu soldaduskaren intsumisioan, intsumituen protagonismo bakarrarekin; gainditu hori eta gizartea bera bihurtu intsumitua, desmilitarizazioaren aldekoa.. Gizartea astindu.

Bigarren elemento interesgarri bat EUDIMaren sorrera da, Euskal Udalerrri Intsumituen Mankomunitatea. 1996an sortutako erakunde honek aurrerapausu izugarria suposatzen du, Udal agintariak asumituko dutelako beren protagonismo kuota desmilitarizazioaren aldeko borroka honetan. Udalerrri hauetan inolako kolaboraziorik ez dago Armadarekin. Zero. Intsumituek beren udaletxeetako babesak daukate, laguntza,.. Honek ondorioak ditu, besteak beste, Alkateen inhabilitazioa. Baina hor arazorik ez dago herri bakoitzeko alkate zein zinegotziek konsekuenteki jokatzeko badute. Hori gertatuz gero, eta horrela gertatuko delakoan nago, lortuko diren irabaziak oso inportanteak izango dira.

Hirugarren elementu bat Estatuko Gobernu berriak jarri du mahai gainean: soldaduskaren desagertzea epe erdi batera. Esan dutenez, hemendik 6-8 urtera armada profesionala izango da Estatuan, soldaduska desagertuz. Horrela espektatiba bat pizten da, intsumisioa ez bait da egongo eta beraz, inolako zigorririk ez. Baina espektatiba hau guztiz faltsua da eta ez ginateke horretan erori beharko. Militarizazio hor jarraituko du eta gure helburua ez da izan behar soldaduskara ez joatea soilik baizik eta armadrik ez egotea, militarismo aztarnik ez egotea inon. Hori izan behar du azken helburua.



Altzako intsumituak “pegada” bat egiten Santa Barbara aldetik.

Beraz, orain arte ezagutu duguna mantentzen da (epaiketak, kartzela, inhabilitazioak,..) eta elementu berri batzuk agertzen hasiak dira. Kontextu honetan mugitu beharko gara Altzako intsumituok eta, zentzu zabal batean, bere burua ez-militarista jotzen duen edonork. Guzti hau da eztabaidatu behar duguna, ahalik eta azkarren, indar berriturik kalera ateratzeko.

Dagoeneko mugimendu txiki batzuk hasiak dira. Altzatar bat edo beste Malatxa inguruan dabil, zerbait bultzatu nahian. Nork daki, hemendik gutxira Malatxak gauzapen praktikoa izan dezake Altzan; bestalde, EUDIMAREN erreferentziatik abiatuta, eta hasierako urteetan elkartasunaren inguruan zeuden planteamentuekin bat eginez, zenbait ideiak bota daitezke mahai gainean: zergatik ez Altza auzoa (askorentzat herria) intsumitua deklaratu? Nortzuk protagonista udaletxerik ez ba dago? Auzoko (herriko) taldeak eta erakundeak! Zergatik ez? Borroka honetan ausartak izan behar gara eta ideiak mahai gainean bota, gero gogoz saiatzeko; egun, ba gara intsumitu dexente Altzan epaituak edota epaiketaren zai, momentu honetan dugun borroka zehatzaz aparte, zein egoera geratuko gara armada profesionala sortuko denean? Ze motako lana egin beharko dugu horren inguruan? Eta desmilitarizazioaren ildo zabalarri dagokionez: nola txertatu ideologia hori Altzan? Nola egin bakarrik gazteoi ez mugatzeko? Ze motako dinamika piztu behar ditugu?

Eremua zabaltu behar dugu. Soldaduskaren aurka borrokatzeak borroka globalago baten zati bat izan behar du Desmilitarizazio hitzak duen esanahia kontutan hartuz.

Intsumituok beste gizarte mota baten alde borrokatu behar dugu. Baina gaia ez da gizarte horretan soldaduskarik ez egotea, baizik eta inolako ejerzitorik ez egotea. Horrekin batera, armak, bonbak,.. egiteko fabrikarik ez egotea, gastu militarrik ez egotea, eremu militarizaturik ez egotea,.. ideologia militarista erabat ezabatzea gizartearen gure helburu izan behar du.

Hau lantzeko, gizartean dauden indarrak aktibatu egin behar ditugu. Azken urteetan landu den kontzientzia, Malatxako lagunek esaten duten bezala, astindu behar da. Dinamika praktikoe-tan gauzatzeko. Borroka honen protagonistak intsumituak bakarrik ez izateko, gizarte osoa inpli-katu behar da. Bakoitzak ahal duen neurrian, baina denek inizatibak sortuz eta zabalduz.

Desmilitarizazioaren ideologia zabaldu, tresna bezala desobediencia jarrerak erabiliz. Hori da, nire eritziz, etorkizuna, eta honen inguruan eztabaidatu beharko genuke.

## Reseña

*El presente artículo relata la historia de lo que ha sido la insumisión en Altza, sus conflictos y tensiones, la búsqueda de soluciones y de modos de concienciación, la necesidad de juntarse y sensibilizar a la población,.... y una propuesta final de reflexión.*

*El 31 de enero de 1997 el Excelentísimo Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián y en Sesión Ordinaria firma el acuerdo por el que, desde ese momento, Donostia es insumisa en base a los siguientes puntos: 1. los artículos 604, 527 y 528 del Código Penal no incluirán a la hora de acceder a los derechos de todos los donostiarras, 2. El Ayuntamiento reclama al Gobierno del Estado que adelante la reforma del actual bloque legislativo referido al servicio militar obligatorio al año 1999, dentro de la actual legislatura, 3. El Ayuntamiento rompe definitivamente las relaciones que mantiene con el Ejército y no colaborará en el reclutamiento y 4. Solicita del actual Gobierno tramite con celeridad el indulto de los jóvenes insumisos sentenciados judicialmente, inhabilitados o suspendidos en sus cargos públicos.*

*Dado que el artículo fue elaborado con bastante anterioridad a la fecha de estos acuerdos nos ha parecido oportuno incluir esta información, muestra de que la insumisión es un tema de actualidad que constantemente va dando nuevos pasos.*